

JANTOKI ZERBITZUA

JARRAIBIDEAK

A) JANTOKIKO ZERBITZUA ERABILTZEKO ESKAERA

1. Jantokiko zerbitzua erabiltzeko orri-eskaera bete, sinatuta eta garaiz eman behar da ikastetxeko idazkaritzan. Egindako aukera aldatzeko asmoa izanez gero, jantokiko arduradunari aurretiaz jakinaraztea, urriaren lehen astea igaro aurretik.
2. Planifikazioa eskaera eta kobratzea datuen arabera egingo da.
3. Eskatu diren aldaketak idatziz eta arrazoituak egin beharko dira bi aste baino lehenago.

B) OHIKO ETA NOIZBEHINKAKO JANKIDEAK

1. Ohiko jankideak

- a. Jantokiko zerbitzua ikasturte osorako eskatu duten DBHko ikasleak, gutxienez astean behin joaten direnak.
- b. HAUSPOA proiektuan parte hartzen duten ikasleak, hiru hilabetez jarraian eta gutxienez astean behin joaten direnak.
- c. Tartekako ohiko jankideak: Banatutako guraso-zaintza edukitzeagatik edo guraso edo tutoreen lanagatik agian kurtsu osoan, astez aste edo hilez hil txandaka ibili daitezkeen ikasleak.

2. Noizbehinkako jankidea

- a. Aurreko sailkapenetatik kanpo geratzen diren ikasleak dira

C) KUOTAK

1. Ohiko ikasleak:

- a. Garraio eskubidedun ohiko ikaslea : 3,30 €
- b. Gainerako ohiko ikasleak: 4,60 €

2. Noizbehinkako ikasleak: 5,20 €

3. Eskaeraren arabera, ikasleak jantokian emango dituen egunak kontuan hartuta, ikasturte osoan ordaindu beharrekoa kalkulatu da aurretik, hilero kuota berdina kobratzeko. Ikasturtean zehar gertatutako gorabeherak azken fakturan jazoko dira, egin beharreko doikuntzaren bidez. Ordainketa data hilabetearen 10etik 15era bitartean izango da, beti hilabetea amaitu ondoren.
4. Ez ordaintzeagatik itzultitako fakturek komisioa daukate eta hurrengo kuotan gehituko dugu.

5. **Jantoki zerbitzurik egon ezean** (greba...) egun horretako zenbatekoa ez da kobratuko. Horrelako kasuetan sasoiz informatuko dizuegu.
 6. Jantokiko kuotaren **%50 deskontatuko da** honako kasu hauetan soilik:
 - a. Ikasleak jantokira joaten ez badira ikastetxeak programatutako **jarduera osagarriak** egin dituztelako eta **picnic** zerbitzurik jaso ez badute.
 - b. Jankidea ez bada **astebetetz edo gehiagoz** jarraian jantokira joan behar, beti ere, gutxienez 2 egun lehenago jakinarazten bada.
 7. Bekadunek kuotak ordaintzeari utziko diote Hezkuntza Sailetik abisua heldu bezain laster eta ordaindutako kuotak itzuli egingo zaizkie (eta zorra kitatu). Aurreko ikasturtean bekadun izatea ez da arrazoia izango kuotak hilerok ez ordaintzeko.
 8. Aurreko ikasturtean ordaindu gabeko agiriak izanez gero, ezin izango da jantokiko zerbitzua erabili.
 9. Ordainagiririk ezituztzea oso garrantzitsua da, honek traba ugari dakar eta.
- D) Ikasleen ez-etortzeak jantokiko arduradunari jakinarazi behar zaizkio aurretiaz, justifikatze-agiriaren bidez, hutsegiteen kontrol eraginkorra izateko.
- E) Jantokiko arduradunak zein begiraleek informatuko dizuegu (telefonoz/whatsapez, edo jantokiko oharren bidez) zuen seme-alaben jarreraz, hutsegiteez, e.a.
- F) **Jantoki zerbitzua izateko eskubidea gal daiteke** ondorengo kausa hauengatik:
- Kuotak etengabe ez ordaintzeagatik.
 - Ikaslearen jarrera desegoki jarraituagatik.
- G) Informazio gehiago (jantokiko ordutegia, menuak, arauak, ...), institutuko edo Hezkuntza sailako web orrialdeetan:
- www.doloresibarruribhi.eus
<http://www.euskadi.eus/comedores-escolares/web01-a2hikasl/es/>

Bukatzeko, jantokiak modu egokian funtzionatu dezan zuen kolaborazioa beharrezkoa dela gogorarazten dizuegu. Edozein iradokizun edota zalantza izanez gero, mesedez institutura deitu edo etorri, eta jantokiko arduradunarekin hitzordua eskatu.